
poesía
"di qua è di là" –

–
"han da hemen",
poesía

poesie di:

Leire Bilbao

Paola Febbraro

Sonia Gonzalez

Luigia

Sorrentino

Leire Bilbao: Ondarroa (Bizkaia) 1978. Ha pubblicato nel 2006 "Ezkatak" (ed. Susa)

Sonia Gonzalez: Barakaldo (Bizkaia) 1973. Ha pubblicato i libro di poesie "Sagarroiak" e "Poema Amnriotikoak". Il "Protocollo per non usare un linguaggio sessista" e il Romanzo "Ugerra eta Kedarra".

Paola Febbraro: Marsciano, in provincia di Perugia. Vive e lavora a Roma.
Turbolenze in aria chiara (1994), *Lezioni e Conversazioni di Amelia Rosselli* (1996). Ha partecipato varie volte al Festival dei Poeti ad Ostia Antica (1994-1999). Ha pubblicato a fratello stefano (*La Volpe e l'Uva*, Bologna, 2000) e *La Rivoluzione è solo della Terra* (Manni, Lecce, 2002), con cui è stata vincitrice del Premio di poesia Renato Giorgi. Ha curato, per Stampa Alternativa, l'antologia di racconti e poesie *Ecchime di Victor Cavallo* (2003).

Luigia Sorrentino:

Poesia:

La nerezza del nero, nei Quaderni di Poesia e.book, Poesia da Fare, a cura di Biagio Cepollaro (Milano, 2004)

C'è un padre (Manni, San Cesario di Lecce, 2003)

In: La poesia in Campania, a cura di Michele Sovente e Biagio Cepollaro, Edizioni Forum Quinta Generazione, (Forlì, 1990)

In: Centauri, farfalle e, appassionatamente tutti gli altri, Colonnese Editore, (Napoli, 1986)

In: Le trame della parola, Edizioni Tracce, (Pescara 1985)

Saggistica:

Il terzo millennio: verso la donna ed. La Vita Felice, (Milano, 2004)

SONIA GONZALEZ

SAGARROIAK

Gaueko naufragioa

Honelako gauetan arraina naiz.
Ontzi garden borobilean ahoz gora etzan
eta koloretako arraina naiz.
Zirkulo zentrukideetan tematzen ditut
nire hegal txikietako ezkatat,
pizina baten mosaiko urdinean
luzara igeri egiten dudala amesteko.
Honelako gauetan brankiak zabaltzen ditut.
Ez oxigenorik
ezta hidrogenorik ere,
ur molekulak ez dira disolbatzen,
ezer ez da sartzen birikietara.
Iparraldeko petroleroen marea beltza
sarearen bestaldean.
Honelako gauetan
dena da laua,
dena barea,
dena urruti.
Guardasol tropikalez basoetako izotzak konkistatu
eta azken txalupa horretara igotzen naiz,
munduaren zorabioan,
noranahi itzultzearren.

SONIA GONZALEZ

PORCOSPINI

Naufragio notturno

In notti come questa sono un pesce.
Un pesce colorato, giacente a pancia in su
nella diafana boccia di vetro.
Con le squame delle mie piccole ali
insisto nel creare cerchi concentrici
per sognare di nuotare lungo il mosaico azzurro
di una piscina.
In notti come questa apro le branchie.
Né ossigeno,
né idrogeno,
le molecole dell'acqua non si dissolvono,
niente entra nei polmoni.
Dall'altra parte della rete
marea nera delle petroliere del nord.
In notti come questa
tutto è piatto
tutto è calmo,
tutto è lontananza.
Con ombrellini tropicali conquisto i cubetti di
ghiaccio del bicchiere
salgo sull'ultima scialuppa,
nel vortice del mondo,
pur di tornare da qualche parte.

Auzoa eta poesia

Auzoan

borroka ilegaleko txakurren aieneak
dira sehaska kanta gauero

Auzoan

martitzen, eguen eta barikuetan
daukate dosi-banaketa parkeko jonkiek

Auzoan

egin den ekintza kulturalik gogoangarriena
The Exploited-en aspaldiko kontzertua

Auzoan

katuak kotxe azpian izkukurik dabilta
zaborte giko arratoietan tamainak beldurtuta

Auzoan etxea, etxean logela, logelan mesanotxea,
mesanotxean agian
kurloiez eta haritzez mintzo den poema bat,
ihesbidea agian,
kurloi eta haritz atean bizi den norbaiten
plagioa agian.

Il quartiere e la poesia

Nel quartiere
latrati di cani da combattimento
ninna-nanna quotidiana

Nel quartiere
il martedì, giovedì e venerdì
i tossici del parco ricevono la loro dose

Nel quartiere
concerto degli Exploited
evento culturale memorabile

Nel quartiere
gatti rintanati sotto le auto
enormi terrificanti ratti dall'immondizia

Nel quartiere la casa, nella casa la camera, nella
camera il comodino.

Forse
sul comodino
una poesia che parla di querce e di passeri,
forse
una via di fuga,
forse
il plagio di qualcuno che vive tra querce e passeri.

Erikaren diskoak

Ekaitza bat izan zen gelan sartzean,
epifania zurbila zeraman soinean jantzita.

“Goazen”

Eta bere lorratzari jarraitu nion.

Atearen danbatekoa.

Besotik hartu ninduen,

kalea gurutzatzeko laguntza behar

duen agurearen antzera, edo

aldarera heltzeko aitaren premia

duen emaztegaiaren antzera.

Baina ez zen emaztegaia,

ezta agurea ere,

izaki are urduri eta zaharragoa baino.

Begiak borobil,

behatokietan dauden tresna

horietako batenak lakoak.

Mingain sikuaz

maiuskulaz idazten den gaixotasuna,

osorik ahoskatzeko lar estua den pandemia

xurxurlatu zidan kale kantoian.

Eta galdetzen ez duten galderetarako

astirik utzi gabe

bere disko guztiak niretzako heredentzia

izango zirela jakinarazi zidan,

zelan gustatzen zaidan musika bazekiela.

I dischi di Erika

Entrò come un temporale,
indossava una pallida apparizione.
"Andiamo"
e seguì la sua scia.
Sbattere della porta.
Mi prese per braccio,
come fosse un anziano che deve attraversare la
strada,
come una sposa che ha bisogno del padre per
arrivare all'altare.
Però non era una sposa,
e nemmeno un anziano,
Era un essere più nervoso e vecchio.
Gli occhi rotondi,
come quelli di uno strumento da osservatorio.
La lingua secca.
Ad un angolo di strada mi ha sussurrato
il nome della malattia. Lettere maiuscole.
Pandemia. Difficile da pronunciare intera.

Senza lasciare tempo
a domande che non chiedono nulla
mi ha detto che tutti i suoi dischi
sarebbero stati la mia eredità,
sapeva che la musica mi piace.

“Goazen”

Eta paseatzen segitu genuen.

Zer den orain CD bat musika-katean imintzea,
Erikaren esku ahurreko borobil etenduetan
notak barreiatzen uztea!

Utzidazu agintzen

Utzidazu agintzen,
jar zaitetz nire menpe,
laga zaitetz nire ordenuetara,
utzidazu mendez mende emakumeoi ostutako
boterea
ohean behintzat berrezkututzen.

“Andiamo”

E abbiamo continuato a passeggiare.

Mettere un CD

ora, adesso

è lasciare che

nei circoli interrotti del palmo della mano di Erika

si diffondano le note.

Lasciami comandare

Lasciami comandare,

mettiti sotto di me,

obbedisci ai mie ordini,

lascia che per lo meno a letto

recuperi il potere rubato

secolo dopo secolo a noi donne.

***Courtney Lovek pelikula hartan ezan zuen
legez***

Ez zaizkit gustatzen
orrazkera kontortua eta lakaz betea
daramaten atsoak,
txandal fosforeszentez eta takoiez
supermekatura joaten diren atsoak;
orkatilak izugarri handitzen zaizkio eta,
zapata handiagoak erosi arren,
ezin dituzte oinak bertan sartu;
barizeak edukitzen dituzke
eta ileak kokospean.

Courtney Lovek pelikula hartan esan zuen legez:

“ni ez naiz sekula zahar eta itsusia izango”

Eta gero

- gazte eta eder –

hil egin zen.

Come disse Courtney Love in quel film

Non mi piacciono
le vecchie con acconciature complicate irrigidite
dalla lacca.

Le vecchie che vanno al supermercato
in tuta fosforescente e tacchi alti;
gli si gonfiano tanto le caviglie che
nemmeno in scarpe comode
potrebbero infilarci i piedi.
Hanno vene varicose
e peli sotto il mento.

Come disse Courtney Love in quel film:

"Io non sarò mai vecchia e brutta"

Poco dopo

- giovane e bella -

mori.

Poemak amniotikoak

modernoak

Altuera ertaineko unibertsitariook
koleta eta gafadunak,
ONG batean baino gehiagotan
 ibiltzen zaretenok,
Latinoamerika eta 3. mundua
 beti pentsamenduan,
70. hamarkadako arropak
 imitatzen dituzten arropaz jantziak
foularrak eta kola-kaoak eskuan,
mutil lagun modernoak
 ileapaindegian despeinatu itxura
 40€tan lortzen dutenak,
munduko biolentziarekin
 ondo kontzientziatuak,
karpeta galtzarpean eta
Adidas kirol zapatilak...

Orain arte bezala
 hipokondriak eta
 hipertentsioak
 jota
 sekula egon ez zaitezten
poema-engendro hau dedikatzen dizuet.

Poemi amniotici

modernità

Voi

studentesse universitarie né alte né basse,

occhiali e codino,

che collaborate con una o più di una ONG,

l'America Latina e il Terzo Mondo sempre in mente,

abiti anni '70

foulard al collo e un *cola-cao* in mano,

ragazze moderne,

con un falso spettinato da 40 Euro,

piena coscienza della violenza del mondo,

cartelletta sottobraccio

e scarpe Adidas ai piedi...

Dedico a voi

questa poesia-informe

perché non diventiate vittime

dell'ipocondria o

dell'ipertensione.

estrategia falta

Igurtzi eta igurtzi
eta garbitu beharreko zikina
kristalaren bestaldean dago.

atzamarrik gabeko langileak

Non amaitu ote zuten
Non gelditu ote ziren
sasoi batean hain baliagarriak
ziren atzamar horiek.

Produkzio makinean bertan
harrapaturik, hozkaturik, birrindurik
usteldu ote ziren?
Fabrikako arratoi gau-jabeak
ote zuen kumeentzako
afari ederra zulora eroan?
Medikuak "ez dago zereginik" esanda
ontzi metalikora ote zituen bota
saskibaloi jokalaria keinuz?

Sasoi batean hain baliotsuak
ziren atzamarrak:
norbaiti deitzeko,
isilarazteko,
popatik hartzera bidaltzeko,
belarrietako zikina kentzeko,
orgasmoak lortzeko.

mancanza di strategia

Sfregare. Strofinare.

Sporcizia da pulire.

Presenza ostinata dall'altra parte del vetro.

lavoratrici senza dita

Dove saranno andate a finire,
dove si troveranno
quelle dita in altri tempi
così preziose.

Sono forse marcite,
intrappolate, tranciate, triturate
negli ingranaggi dell'industria?
Un topo della fabbrica padrone della notte
le avrà offerte ai suoi piccoli come sontuosa cena?

Sono forse finite, con un abile lancio
nel canestro metallico del medico che diceva
"non c'è niente da fare"?

Dita che un tempo furono di tanto valore:
per chiamare qualcuno,
per farlo tacere, per mandarlo 'affanculo,
per pulirsi le orecchie,
per raggiungere l'orgasmo.

Atzamarrak,
hamar hatz,
beti hor izango balira bezala,
mundua ikutzeko eskuak osatzen zuten,
noizbait, urduriak jota egongo
eta atzazkol bat,
 atzazkol lasaigarria
faltako zitzaiela
bururatu barik / kontziente izan barik.

Dita,
dieci dita,
come fossero lì per sempre,
per mani che permettono di toccare il mondo
inconsapevoli che in futuro,
in preda a un attacco di nervosismo,
quell'unghia da mangiucchiare
unghia tranquillizzante
sarà persa
per sempre.

alizia

Goizaldeak talka
egin du sudur eta begi
gorriez gainezkatzen
diren zubipeen
kontra.

Txakurrak jabeen inguruetan
eta inork nahi ez dituen ortuariak,
alperrik galtzen diren berbak eta
inoren birikietara sartuko ez den haizea.

Irratien berriketa eta aharrausiak.
Etxeko leihatilatik txute mota ezberdinak:
 besoko tipikoa,
 orkatilako ez hain tipikoa,
 hankartekoa, denetan berriztatzaileena,
 mingain azpiko bat, oskarra mereziko lukeena.

Erreka alboko eskaileretan
geldi-geldirik
gelditzen dira
argizaiol bako argizariak.

Zerraldoginak eta kutxagileak
zeharkale eta zumarkaleetatik
paseatzen dira bien bitartean.

Hauxe bai
Bilboko ispiluaren bestaldean dagoela
Alizia konturatzeko manera.

alice

Violento cozzare dell'alba
contro il ponte.
Sotto, si ammassano
nasi e occhi arrossati.

Cani, padroni incontrastati.
E ortaggi che nessuno vuole.
Parole che si perdono invano e
un respiro che non entrerà nei polmoni di nessuno.

Chiacchiere alla radio. Sbadigli.
Dalla finestra di casa rassegna del buco:
 al braccio, tipico,
 sulla caviglia, non così tipico,
 fra le gambe, nuovo,
 sotto la lingua, da Oscar.

Giù al fiume sulle scale
si fermano
immobili
ceri senza portalume.

Costruttori di bare e pompe funebri
passeggiano tra il corso e le vie del centro.

E' così che Alice sa
di trovarsi dietro
lo specchio di Bilbao.

nautak

Nauta-nautae latinak
bere ontzian
konjugatzen zituen antzera,
bidaiatzeko nahia eta
galarrenaren beldurra
olatuetan nahasten dira.

Baina eta zenbaitetan
aldareek, sakrifizioek, jainkosek
ezelako baliorik ez edukitzeaz gain,
ezertarako ere ez dute balio.
Zenbaitetan
mehatxu egiten digun izeberra
geure baitan dago.

nautak

Nauta-nautae, declinazione
nella barca del latino,
allo stesso modo si mischiano
nella schiuma delle onde
la paura della tempesta
e il desiderio di viaggiare.

Non sempre
altari, sacrifici, dee,
hanno alcun valore,
o servono a qualcosa.
Spesso
l'iceberg che ci minaccia
è dentro di noi.

ekintza poetiko zuzena

Poemek bertso tartean
harririk baleramate
zikinkeriaren leiho-kristala
apurtzea
ez litzateke gauza gaitza.

Momentuz
hobe izango da
harriak poema orrietan biltzea
banketxeen kontra jaurtikitzeko.

azione poetica diretta

Se tra un verso e l'altro di una poesia
si nascondessero pietre
non sarebbe difficile
fare a pezzi
la vetrina della sporcizia.

Nel frattempo
sarà meglio
avvolgere le pietre in pagine di poesia
prima di lanciarle contro i vetri di una banca.

ahanzgura

Aterberik ez den bideak
arroztu dira denak.
Semaforoak oro gorri.
Zigarroek zikindutako atzamarrez
ilea behin eta berriz
ebakitzen duen andra bihurtu naiz.

Mundua antropologia museo
erraldoia baino ez dela,
sekula bidaliko ez den
zigilu bilduma
bezain estatiko
eta baliogabea dela

ahazteraino

bere burua urkatzen ahalegindu
eta soka eten zaion
suizidaren frustrazioa

ezabatzeraino

jo nahi nuke larrua.

Larrutan ahazteko dena.
Dena larrutan geratzeko.
Larrua baita
muga zehatz
ondo ezagun bakarra.

voglia di dimenticare

Le strade senza riparo
si sono fatte estranee.
I semafori tutti rossi.
Sono diventata una donna che
con le dita sporche di sigaretta
si taglia e ritaglia i capelli.

Vorrei fare l'amore

fino a dimenticare

che il mondo non è che
un gigantesco museo antropologico,
non è che
una statica, irrilevante
collezione di francobolli
che mai saranno spediti,

fino a cancellare

la frustrazione del suicida
che cerca di impiccarsi
ma a cui si spezza la corda.

Tutto da dimenticare nella pelle.
Tutto da lasciare nella pelle.
Perché la pelle è
l'unica vera frontiera
che conosciamo a fondo.

arraren harra

Saihetsak laztantzen dizkiodala,
kabalan jolasten dut
 jainko arrak
guztietatik zein aukeratu ote zuen
nire amonaren amona sortzeko.

Jainko horrek erein zituen
harrak hainbat menderen ostean
fumigatzea lortu ote dugun.

Etsaiari saihetsak laztantzen dizkiodala
ikutzen dudan horietako bat
baino ez naizen
galdetzen diot bere buruari.

Mesanotxeko argia isiotu dut.
Gizakiok iluntasunaren beldur
 garen legez,
mamuak, akaso, argiak
ikaratu egiten ditu.

il verme del maschio

Quando gli accarezzo le costole

gioco alla cabala:

quale avrà scelto

il dio maschio

per creare la nonna di mia nonna?

Dopo tanti secoli

siamo forse riuscite a disinfestare

dai vermi che quel dio seminò?

Quando accarezzo le costole dell'altro

chiedo a lui se non sono

che una di quelle.

Ho acceso la luce del comodino.

Come noi umani abbiamo paura del buio,

forse

la luce

spaventa i fantasmi.

munduaren jabe

(bizitzak ez dauka titanic pelikularen antz izpirik ere ez)

Munduaren jabe sentiarazten nau.
Janis Joplin kontzertu baten ostean
bere azkenengo hotelean,
pasabideetatik paseatzen,
handik ordubetera
hil beharko zela jakin barik.

Horrelaxe,
horren arduragabe eta
 transzendentzia bakoa
 horren esku hutsik
sentiarazten nau
munduaren jabe.

padrona del mondo

(la vita non assomiglia affatto a Titanic)

Mi fa sentire padrona del mondo.
Janis Joplin, dopo un concerto
nel suo ultimo hotel,
passeggia in corridoio,
senza sapere che un'ora più tardi
sarebbe morta.

Così,
senza la minima preoccupazione
senza la minima importanza
con le mani in mano
mi fa sentire
padrona del mondo.

Traduzioni di Roberta Gozzi

LEIRE BILBAO

ESKATAK

Burua Kentzen

Badira
emakume azalak
ezkata usaina baino itsaskorrakoak
Badira
barrua nola hustu jakiteke
urdailera zuzenean doazen esku emeak
Badira
amantalean batzen diren odolak
Badira
senarraren begirada duten arrainak
Badira
arnasestuz erauzten diren zakatzak
Badira
olatuen dardara duten gorputzak
Badira
maitale desleialarekin bezala
itsasoarekin oheratzen direnak
Badira
arrainei beraiena bailitz burua kentzen dieten
emakumeak

Staccare la testa

Ci sono
pelli di donna
che odorano di squame ma ancor più marine
Ci sono
mani femminili che sanno come svuotare dentro,
andando dritte allo stomaco
Ci sono
sangui che s'incontrano sui grembiuli
Ci sono
pesci che hanno lo sguardo dei mariti
Ci sono
branchie divelte dall'affanno
Ci sono
corpi che hanno il tremolio delle onde
Ci sono
che vanno a letto con il mare
come con un amante infedele
Ci sono
donne
che staccano la testa ai pesci come se fosse la loro.

Egonarria

Ez eskatu ispiluak bezain leiala izan nadin
ezin bazara ikusi zure aurrean,
ezin badidazu barrura so egin
zabalik etsi den leiho batetik bezala.

Ez naiz sugelandarea arrakala artean,
nagoen lekuan irauten erakutsi didate.

Egonarriz eramaten ditut egunak,
aitak emandako etxeari eutsiz
etsi naiz oharkabeen.

Ez dakit bestearen minaz nireaz ez bada.
Ikusten dudan bezala diotsut,
ez eskatu ispiluak bezain leiala izan nadin,
ez naiz mugituko
hatsak agintzen didan heinean.

Nagoen lekuan irauten erakutsi didate.

Pazienza

Non chiedermi di essere fedele come uno specchio
se non riesci a vederti quando ti hai di fronte,
se non riesci a guardarmi dentro
come da una finestra lasciata aperta.

Non scappo come la lucertola nella fessura,
mi hanno insegnato a rimanere nel posto dove sto.

Porto i giorni con rassegnazione,
aggrappandomi alla casa data dal padre
senza conformarmi involontariamente.

Solo so del mio dolore e non di quello degli altri.
Te lo dico così come lo vedo,
non chiedermi di essere leale come uno specchio,
non mi muoverò
se non è il respiro a comandarmelo.

Mi hanno insegnato a rimanere nel posto dove sto.

Odoletan 1

«Odoletan nago» zikindu dut atzamarrekin ispiluan.
Odoletan nago baina ez naiz emeago sentitzen.
Kalez beterik daude usainak,
kea ari du harripetik.
Sutu egin dira teilatuak,
masail gorritu bat da zerua albotik pasatzean,
orrazetatik tantaka ari dira segundo odolkarak,
lotsaturik erori dira hostoak ukitu orduko.
Odoletan dago oinez naraman lurra ere,
sortu zuen sabeletik isuriz doa
barrunbeek onartu nahi ez didaten jarioa.
Eta ez dakit zergatik ukatu behar dudan
naizena: emakume bat odoletan.

Sanguinando 1

“Sto sanguinando” sporco lo specchio con il dito.
Sto sanguinando ma non mi sento più donna.
Gli odori sono pieni di strade,
esce fumo dalle pietre.
I tetti sono in fuoco,
il cielo è una guancia arrossata quando qualcuno
passa vicino,
come gocce dalle lancette colano i secondi color del sangue,
le foglie cadono vergognose appena sfiorate.
Sta sanguinando anche questa terra che mi spinge ad andare,
fluisce dal ventre che lo ha generato
questo flusso che le mie viscere non vogliono accettare.
E non so perchè devo negare
quello che sono: una donna che sta sanguinando.

Odoletan 2

Odolez zikindu ditut atzamar puntak
eta ahora eraman zalantzati.
Nire gorputzak nahi ez duen odol honek
ez du zapore mikatzik.
Min egiten didate titiburuek
ezpain eske baleude bezala.
Ez ditut zureak gura,
ez ditut inorenak gura,
niretzat ondo gordeak dauzkat.

Taupadaka daukat barrua, erantzun eske,
eta esku bat pausatu dut bularrean.
Galdetu didazu zergatik batzuetan zuri baino
hobeto ulertzen diodan lehoi eme bati.
Orain badakizu bularrak taupadaka ditudanean
zergatik ez dizkizudan uzten ukitzeko,
zergatik gordetzen ditudan neuretzako.

Sanguinando 2

Ho sporcato le punte delle dita di sangue
e le avvicino indecisa alla bocca.
Questo sangue che il mio corpo non vuole
non ha un sapore amaro.
Mi fanno male i capezzoli
come se chiedessero delle labbra.
Non voglio le tue,
non voglio quelle di nessun altro,
ne ho ben conservate per me.

Il mio dentro batte, chiede risposta,
e ho una mano posata sul petto.
Mi hai chiesto perché a volte capisco meglio una
leonessa
di quanto capisco te.
Adesso sai perché quando il petto palpita
non te lo lascio toccare,
perché lo serbo per me.

Ez dut nahi

Ez dut lurperatuko nauen aberririk nahi,
izan nahi genuena ahora ekarriko didanik.

Ez dut nekatuko nauen maitasunik nahi,
lepora igoko zaidanik mendeku hartzeko ez bada.

Ez dut babestuko nauen amarik nahi,
alboan izango ez badut denbora badoanean.

Ez aberri, ez maitasun, ez amarik
ez badut, nora itzuliko naiz?

Non voglio

Non voglio la patria che mi sotterrerà,
che mi metta in bocca quello che volevamo essere.

Non voglio l'amore che mi stancherà,
che mi si aggrappi al collo solo per vendetta.

Non voglio una madre che mi proteggerà,
che non mi sarà vicina quando il tempo se ne andrà.

Né patria, né amore, né madre
se non le ho, dove tornerò?

Gereziondoak loretan

Bere haur negarra isilarazteko
buelatu nahi duela herrira esan dit,
maiatzak ertza jo aurretik
gereziondoak loretan ikusteko.

Denborarekin kaleak eta iritziak
okertzen joan zaizkiola,
arnasa ez duela jada
utzi zuen lekuan aurkitzen.

Bakardadea neguko kaleetan
beroki lodi batekin ibiltzea dela,
badirela atea zabaltzean
inoiz ezer sartzen ez den etxeak,
kanpoko hotza ez bada.

Egunak hausten zaizkiola eskuetan,
hil berriak bezala prestatzen dela gauero,
lotsa ematen diola ohean biluzik hiltzeak.

Maiatzak ertza jo du,
eguzkiak berotu harriak sartu ditu poltsikoan.
Bere haur negarra isilarazteko
buelatu nahi duela herrira esan dit.

Ciliegi in fiore

Per zittire il suo pianto di bambino
mi ha detto che vuole tornare al paese,
per guardare i ciliegi in fiore
prima che maggio arrivi al termine.

Che col passare del tempo le strade e i pensieri
gli si sono fatti contorti,
e non trova più il respiro
nel luogo dove l'ha lasciato.

Che la solitudine è camminare nelle strade
d'inverno indossando un cappotto pesante,
che ci sono case in cui, quando apri la porta,
non entra mai niente,
se non il freddo di fuori.

Che i giorni ti si sbriciolano tra le mani,
che si prepara ogni notte come si fa con un morto recente,
che gli fa paura morire nudo nel suo letto.

Maggio è arrivato al termine,
ha rimesso in tasca le pietre scaldate dal sole.
Mi ha detto che vuole tornare al paese
per zittire il suo pianto di bambino.

Inboluzioa

Nola ezagutu naiteke gaur
atzo ezezagutu nintzena?

FERNANDO PESSOA

Tok-tok neu naiz
azalari buelta eman eta neure zainetara sartu nahi
duena

Tok-tok zabal zaitetze zainok
neure odoletan igeri egin
birikak eta bularrak iruntzitara ikusi
eta arnasestuan dabilen gerezi bihotza ahora
dezadan

Tok-tok neu naiz
ehundutako azalaz erantzi eta neurez busti nahi
duena
umetokian kuzkurtuta lokartu nahi duena
neure barne hormak laztandu nahi dituen
ikusmira nadin oinetatik kopetaraino

Tok-tok neu naiz
begiak estali eta mihia irentsi eta
burezurra eskuetan hartu nahi duena

Tok-tok neu naiz
utxidazu nigan sartzen
ezagutarazi nadin
besterik ez dut nahi

Involuzione

“Come posso conoscermi oggi
se ieri non mi conoscevo?”
FERNANDO PESSOA

Toc-toc sono io
quella che vuole rivoltare la pelle per entrare nelle proprie
vene.

Toc-toc aprite vene
perché io possa nuotare nel mio sangue
vedere dall'altro lato seni e polmoni
e mettere in bocca il cuore di ciliegio in affanno.

Toc-toc sono io
che voglio vestire la mia pelle intessuta e bagnarmi di me
che voglio addormentarmi rannicchiata nell'utero
che voglio accarezzare le mie pareti interne
curiosa di scoprirmi dalla testa ai piedi

Toc-toc sono io
che voglio nascondermi il cranio tra le mani
tapparmi gli occhi e ingoiare la lingua

Toc-toc sono io
lasciami entrare in me
altro non desidero
che conoscermi

Betazalak

Arima batzuetan izaten da.
Inork ez dauka
etenik gabe eta betirako.
WISLAWA SZYMBORSKA

Zabaldu dituzu begiak,
itzartu berri denaren usaina daukazu,
lo egin duenaren zaporea.
Zarratu dituzu begiak,
gezurrak jauzika ari zaizkizu betazaletan,
eta nik denak sinetsi nahi.

Zarratu dituzu begiak,
isiltzen denaren betazaletan
irakurtzen ahal delako gordekoa,
nola hilotzei begiak zerratzen dizkiegunean
hildakoen betazaletan irakurtzen ahal den
esateko zutena, esan gabe laga dutena.

Lo egin duenaren usaina daukazu,
itzartu berri denaren zaporea,
jaioberri bat dirudizu.
Gezurrak sinetsi gura dizkizut,
ume batek egia zaharrak
deskubritzen dituen moduan.

Palpebre

L'anima la si ha ogni tanto.
Nessuno la ha
di continuo e per sempre.
WISLAWA SZYMBORSKA

Apri gli occhi
hai l'odore del nuovo risveglio,
il sapore di chi ha dormito.
Chiudi gli occhi,
le bugie ti saltellano dietro le palpebre,
e io vorrei crederle tutte.

Chiudi gli occhi,
perchè nelle palpebre di chi tace
è possibile leggere ciò che è nascosto,
come quando chiudiamo gli occhi ai morti
possiamo leggere nelle loro palpebre
quello che avevano da dire, quello che hanno
lasciato senza dire.

Hai l'odore del sonno,
il sapore del nuovo risveglio,
sembri un neonato.
Voglio credere alle tue bugie,
come un bambino
che scopre le antiche verità.

Ezinen orekan

Hazten joan diren minekin hazi gara,
harri gaineko lo beroarekin,
ezinen orekan.

Ezinekin jostatzea
ez da ezin jostatzea.

Lekuz aldatzeko ez bada
ez hartu harria esku artean.
Urrunera jaurtitzeko ez bada
ez erauzi sortu zen lurretik.

Zinez diotsut,
ezinez izan gara.

Edonora goazela ere
usain bera daramagu azal azpian.
Lur heze usaina,
amaren usaina bezala,
edonora goazela ere
azalaren azpian.

Ez da erraz ezabatuko.
Nork ez du gorrotatu inoiz
gehien maitatu duena.
Nork ez du gorrotatu inoiz
azal azpiko lur heze usaina.

Hazten joan diren minekin hazi gara,
harri gaineko lo beroarekin,
ezinen orekan.

Nell'equilibrio dell'impossibile

Cresciamo con i dolori che crescono,
in un caldo sonno su una pietra,
nell'equilibrio dell'impossibile.

Giocare con l'impossibile
non è l'impossibilità di giocare.

Non prendere la pietra tra le mani
se non per cambiarla di posto.
Non sradicarlo dalla terra in cui è nato
se non per lanciarlo lontano.

Posso assicurartelo,
siamo senza poter essere.

E ovunque andremo
porteremo sempre quell'odore sotto la pelle.
Odore di terra umida,
come l'odore della madre,
ovunque andremo
sotto la pelle.

Non è facile da cancellare.
Chi non ha mai odiato
la persona che ha più amato.
Chi non ha mai odiato
l'odore di terra umida sotto la pelle.

Cresciamo con i dolori che crescono,
in un caldo sonno su una pietra,
nell'equilibrio dell'impossibile.

Besterik ezean

Izango dira egunak besterik gabe amaituko direnak,
besterik ezean emandako berbak izango dira.
Izango dira hozkailuan iraungiko diren erantzunak.
Aukera egin beharrak beti dauka kostua.

Izango dira uneak hormak bezala pilatzen direnak,
eman gabeko agurrak izango dira.
Izango dira besterik ezean gordetako nahiak.
Ez egitea ere zigortzen da.

Izango dira izkinak leku oro errepikatzen direnak,
inoiz etorriko ez diren garaiak ere izango dira.
Izango dira ezin hautatu ditugun moduak.
Usoek harriak jaten dituzte tarteka.

In mancanza d'altro

Ci saranno giorni che semplicemente passeranno,
in mancanza d'altro ci saranno delle parole date.
Ci saranno nel frigo risposte che scadranno.
Scegliere ha sempre un costo.

Ci saranno istanti affastellati come nei muri,
e ci saranno addii non dati.
Ci saranno in mancanza d'altro desideri nascosti.
Anche il non agire si castiga.

Ci saranno angoli che si ripetono in tutti i luoghi,
ci saranno anche momenti che non verranno mai più.
Ci saranno modi che non potremo scegliere.
A volte anche le colombe mangiano pietre.

Traduzioni di Viviana Tomassetti

LUIGIA SORRENTINO

lo slancio della rosa

I.

il silenzio della rosa, della pace ferma
nel gomito sulla fronte di aprile
nascesti imperlato nella casa doveva essere
l'ultima in una primavera in cui fummo
davvero soli
portavamo lo stesso sangue
la stessa cellula che fu accanimento
accadimento anche precoce
la meraviglia era voce che spariva nella stanza
voce lenta
dove rimbombava la rosa
stesa nella domenica

non ricordo l'esattezza del timbro
né il carnevale che provavo in quella stessa ora

arroxaren habaila

arroxaren ixiltasuna, pake geldia
ukondoan apirilaren kopetan
perlaturik jaio zinen etxean
azkena izan behar zen
benetan bakarrik geunden udaberrian
odol berbera generaman
lehiati zen zelula berbera
gertaera goiztiarra ere
miragarria gelan desagertzen zen ahotsa zen
ahots motela
non arroxaren ohiartzuna
igandean zabaltzen zen

Ez dut gogoan tinbrearen zehaztasuna
ez eta ordu hartan dastatzen nuen inauteria

perché siamo di questa
terra, la terra dei gerani e dei cento canarini gialli

sollevàti dall'oceano ci trovammo tutti

ci aspettiamo dici nella febbre
da solo non potevi immaginare volevi dire
ora la febbre
questa febbre pronunciavi
il suo volto nella veglia della rosa nel tuo trenta
d'aprile
nell'ossigeno qualcuno dimentica la sua origine

il superfluo,
l'inutile esattezza
del bacio stampato sulla guancia nella bella
mollezza della carneficina

Lur honetakoak bait gara
geranio eta ehun kanario orien lurra

ozeanoak jasoak kausitu ginen guztiok

sukarreen diozu itxarongo gara
ezin bakarrik imaginatu esan nahi zenuen
sukarra orain
sukar hau ahoskatzen zenuen
haren aurpegia arroxaren beilan zure
apirilaren hogeitamarrean
osigenoan baten batek jatorria ahazten du

superflua,
sarraskiaren belaxka ederrean
aurpegian estanpatutako musuaren
zehaztasun inutila

un conforto ci sarà al lampo già cominciato
forte è la mano che prende la materia la mano
che disfa sul punto il superfluo raschiando
in pieno petto la controra
oh! chi lo sa come avremmo vissuto senza
i sobborghi della specie dove nessuna creatura
indifesa è meno necessaria oggi
sotto i cartoni il vento qualche volta
spinge avanzi di scarpe nelle sere in cui
qualcuno lascia il giaciglio sulla sponda
come lacera misura

izanen da bihotz ematerik tximista piztu berriari
indartsua da materia jasotzen duen eskuasuperflua
puntuan desegiten duen eskua
bularrean bertan
atseden ordua karraskatuz
oh! batek daki espeziearen periferiarik gabe
nola bizi izango ginen
non babes gabeko izaki oro ezinbesteko den gaur
kartoi azpian nehoiz
haizeak zapata apurrak sakatzen ditu
neurri urratua lez
baten batek etzalekua ibaiertzean uzten duen gauetan

se solo tu avessi un istante sotto questo
millesimo
chiuso nel bottone di ogni tua immersione
quando tutto per noi emerge come un cratere
ti dicono *questa è la cavità,*
questa la legge delle esplosioni
una natura morta,
dove si consuma il movimento

vedi, questo è il significato della materia
da ombra a sangue e carne, dissolta da ogni lato

e non discutere gli argini, il letto
d'acqua che spunta all'improvviso
pattugliato dalle gambe degli angeli
in quel tumulto
apocalisse e pietra

Milaordeko azpi honetan instant bat
zuk bazenu
zure inmersioaren botoian itxita
krater baten moduan guretzat dena agertzen
denean

hauxe da zuloa esaten dizute

hauxe leherketaren legea

natura hila,

non mogimendua kontsumatzen den

begira, hauxe da materiaren esanahia

itzaletik odol eta okelera, alde guzitatik nahasia

eta bazterrak ez eztabaidatu, bapatean

agertzen den urezko ohea

aingeruen anakak patrulaituta

apokalisi eta harri

tumulto hartan

se si perde qualcosa
come il nome
niente è così breve
sulla città degli
esiliati
nemmeno l'ombra
cavalcata dai muri
e non basteranno
cenni dal finestrino
prima che la pioggia
li disperda
obliqua, dove ognuno
sa che non c'è stata
offesa
e il lampo mi acceca
e con la mano diventa
notte
le sua ombra verticale

oh! chi trattiene l'ascolto?

e i dispersi brevi
indietro non hanno
che la luce del
semaforo
a scostarli sottili
come giunchi
fioriti all'indomani
e allora può anche
essere che il mattino
sia speciale

Galtzen ba da zeozer
demagun izena
ezer ez da horren laburra
atzerriratuen
hirian
ez eta ormak zamalkatutako
itzala ere
eta lehiatilatik egindako keinuak
ez dira aski
euriak eslaiak barreiatu
baino lehen
non orok daki
ez dela laidorik izan
tximistak itsutzen nau
eta eskuarekin
gau bihurtzen da
haren itzal bertikala

oh! zeinek galerazten du entzutea?

eta galdutako laburrak
semaforoaren argiak besterik
ez dituzte somatzen
biharamunean loratutako
ziri landareen lez
eta hala
goiza berezia ere
izan ote da

siamo giunti alla terra che chiedi
nessun essere più caro è entrato
nel cratere d'argento
delle lacrime lontano

ma dobbiamo fare presto
a due mani prendere i cenni
degli alberi, i limoni che le stagioni
gonfiano, e i fichi quaranta
e quelli uno sull'altro cadono
mutando aspetto fra di loro
e voce, tutti e quaranta cadono

a ciascuno il suo volgersi

eppure io vidi il cuore gonfio
dalla parte dei campi fuori città
nel frutteto con la camicia sporca
il pantalone rappezzato vidi
l'angolo retto del corpo piegato
dietro il melo a crescere pena

a metterla parve cosa utile
contro le spine dei rovi

eskatzen duzun lurrera iritsi gara
izadi maiteagorik ez da sartu
malko urrutien
zilarrezko kraterran

arin egin behar baina
eskubetez arboletako zeinuak jaso
aroak puzten dituzten limoiak, ta
pikuak berrogei
ta bata bestearen gainean erortzen dira horiek
haien artean ahotsa ta
itxura mutatuz

bakoitzak bere iraulia

nik bihotz puztua ikusi nion ordea
kaletik urrun baserri aldean
fruta arboladian alkandora zikina ta
galtzak erauziak ikusi nituen
gorputz makurtuaren angelu zuzena
sagarrondoan pena haziz

laharraren arantzetan lagatzea
pobetxuzkoa zirudin

Traduzione di Ander Ituarte

Paola Febbraro

da 'La Rivoluzione è solo della Terra'
Manni Editore 2002

Fammi restare con te lavorio del mondo

o! tenera forma già fatta crosta del pane lattuga o! mare di tutte le lacrime che pure sono acqua del corpo che pure escono e spingono e si allargano dentro come fiume di fuoco e ti senti che stai diventando guscio dell'uovo del mondo che sei trasparente come tutti quando si torce, la forza consiste nel non alzare lo sguardo per vedere il già fatto la forza è restare incollati al lavoro fammi restare con te lavorio del mondo rendimi zucca pelata non farmi vedere riempimi d'acqua chiama a raccolta le menti del mondo le menti isolate e tranquille le schiene nelle risaie quei fili dell'erba a uno a uno o! muraglie o! gelsomini o! dirupi o! capre del sale e il nero di china fammi restare con te lavorio del mondo rendimi invincibile come filo di rame arrossami e non farmi morire porta via da me questo non fare questo credere di non stare facendo non darmi queste ultime parole: rovinami tu!

Paola Febbraro

'La Rivoluzione è solo della Terra'-tik;
Manni Editore 2002

Laga hidan hirekin munduko trabailu

o! forma xamurra letxuga ogi koskorra honezkero izana o!
malko guzien itsaso gorpuaren ura izanik jalgi direnak ta
barruan hedatzen eta bultzatzen dute suzko ibai antzo ta
arraultz oskola bihurtzen ari zarelaokan zaude trasparente
denok bezala makurtzen denean, jada egindakoari so
egiteko burua ez jasotzean datza indarra indarra lanari
itsatsia izaten da laga hidan hirekin munduko trabailu
bilakatu hidan kalabazasoila, ez hidan utzi ikusten urez
bete ni bildu hitzan munduko senak sen isolatu eta lasaiak
arroz landetako bizkarrak belar luze haien artean bat
banan o! jasmina o! amildegi o! gatz ahuntzak eta tinta
beltza laga hidan hirekin munduko trabailu garaiezina
bilaka nazazu gorritu kobre haria banintz ez ni neu zendu
uxatu nigandik ez egite hau ustezko ez egite hau ez niri
eman azken hitzok: hondatu hidan!

SETTIMANA
dettata dal respiro

7 gennaio 1997

bisogna imparare di nuovo
dove poggiare le cose dentro e fuori di noi

e bisogna imparare ad allontanare e ad avvicinare
sia cosa ci fa bene sia cosa ci fa male

e bisogna imparare ancora
ad avvicinare e ad allontanare

sia chi ci dà del bene che chi ci dà del male

14 gennaio 1997

GIORNO
dell'ascolto

Non c'è trionfo
solo mutazione

Non ci sia mai trionfo dentro di te a stonare
perché non c'è trionfo
solo mutazione

16 gennaio 1997

ASTEA
arnasak emana

gure barru ta kanpoan gauzak non utzi
ikasi behar berriz

eta bai on bai gaitz egiten diguna
urruntzen eta hurbiltzen ikasi behar

eta bai ongia eta bai gaitza ematen diguna
hurbiltzen eta urruntzen

ikasi behar oraindik

1997 urtarrilaren 14

ENTZUNeguna

garaipenik ez dago
mutazioa besterik

Ez dezala garaipenik inoiz zugaran desafinatu
ez baitago garaipenik
mutazioa besterik

1997 urtarrilaren 16

SETTEMBRE

e l'intensità di cui sono piena scende piano ed io
lascio che salga dalla pianta dei piedi questa liberazione

è come se il tempo entrasse così dentro il mio corpo
e così cammino respirando ogni lento passo dei miei piedi

e questa stanchezza mi fa occhi limpidi come acqua dalle
montagne e
c'è dentro di me una sorgente forte che non sta bruciando
ed è così ricca di minerali

io
ho
sapore

1 settembre 1997

IRAILA

ta beterik nauen intentsitatea jaisten da motelki eta nik
askapen hau oinazpitik igotzen uzten dut

nire gorputzan denbora sartuko balitz bezala da
nire oinen pauso geldiak arnas beteka nabil

ta neke honek mendi ur begi garbi egiten nau ta
nire barnean erretzen ez dagoen iturri sendo bat ba da
ta mineraletan horren joria

nik
zapora
dut

STAMATTINA

Il tram sferraglia
è l'alba

nel giro di poche righe
il cielo si colora

ora m'addormento
tutta spalancata

NOTTE

detta del sogno

ho i piedi nudi e sto camminando in una strada allagata di
vino rosso
la strada che porta al paese è allagata da un ruscello di vino
rosso

attraverso un breve tratto scavato nella roccia
bagliori di fuochi e di luci

le donne stanno preparando una festa lassù
come ogni anno

GAURKO GOIZA

tranbia karranka
egunabar

lerro gutxi barru
zerua margotzen da

lotaratzen naiz orain
gutziz zabalduta

GAUA ***ametsaren hizkia***

hutsik dauzkat anakak eta ardo gorriak gainezka egindako
bide batean nabil
ardo gorri errekak gaina hartu du herrira daraman bidea

aitzurtutako estrata labur bat zeharkatzen dut
argi eta suzko distirak

andreak festa prestatzen ari dira han goian
urtero bezala

GENNAIO

io devo custodire un cuore misterioso
io devo custodire un'ombra

io non ci devo parlare io devo
io devo lasciarlo andare

io devo lasciare che viva che mi attraversi
io mi devo abbandonare al fresco della sua ombra

io non devo avere paura che muoia io non ci devo parlare
se ci parlo io non comunico più io sono sola

FEBBRAIO

nessuno ti dice perché custodisci

e se è l'opera a custodire se stessa allora ci nascono figli

come lunghi alberi silenziosi

URTARRILA

bihotz misteriotsu bat kukutu behar dut nik
itzal bat kukutu behar dut nik
nik behar ez dinat hitzegin behar nik
utzi behar dut nik

bizi dadila eta zeharka nadila utzi behar dut nik
haren itzalaren freskuran abandonatu behar ni neu

haren heriotzak ez nau beldurtu behar ez dinat hitz egin
behar nik
nik hitzegiten ba dut ez dut ba komunikatzen bakar bakarrik
naiz

OTSAILA

inork ez dizu estaen zergatik zaintzen duzun

eta obra baldin bada bere burua zaintzen duena orduan
semeak jaiotzen dira

arbol luze ixilak bezala

1997 otsailaren 19

Traduzioni di Ander Ituarte



www.euskara.it



Dipartimento di lingua e cultura basca